

LOREZAINZA ETA LORADENDA

Gaitasun orokorrak

Titulu honi gaitasun orokor hauek dagozkie: barruko eta kanpoko lorategiak eta kirol erabilerarako zelaiak jartzea, zaintzea eta berritzea; landareak eta loreak ekoizteko lanak egitea; eta makina eta instalazioak zaintzea. Hori guztia, betiere, ingurumenari, kalitateari, kontrolari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia beteta.



Heziketa zikloaren helburu orokorrak

1. Planoak interpretatzea, espezifikazioak irizpide teknikoen bitartez aztertuz, lorezaintzako eta paisaiak lehengoratzeko proiektuen zuinketak egiteko.
2. Lanak nekazaritza jardunbide egokien arabera egitea eta tresnen aukeraketa eta erregulazioa justifikatzea, lurra prestatze aldera.
3. Substratuak eta substratuen nahasteak identifikatzea eta dagozkien landare espezieekin lotzea, lantzeko lurra prestatze aldera.
4. Instalazioak muntatu eta zaintze aldera, dagokien dokumentazioa interpretatzea eta teknikak aplikatzea; hori, espezifikazioak irizpide teknikoen arabera aztertuz.
5. Haziak ereiteko eta landareak aldatzeko prozedurak identifikatzea eta aplikatzea, eta landare materiala ezartzeko bitarteko teknikoak deskribatzea.
6. Mantentze-lanetarako teknikak identifikatzea eta aplikatzea, eta lorategiko produktu begetal zein ez-begetalak zaintzeko eta berriz jartzeko tresnak, makinak eta ekipamenduak ezagutzea eta aukeratzea.
7. Laginketa metodoak deskribatzea eta erabiltzea, eta zenbaketa prozedurak identifikatzea, laboreetako agente onuragarri eta kaltegarriak zenbatzeko.
8. Tratamendu fitosanitarioen prozesua deskribatzea eta gauzatzea, dokumentazio teknikoa aztertzea eta tratamendua prestatzeko eta aplikatzeko tresneria aukeratzea.
9. Teknika eta kalitate arloko parametroak aztertzea eta fruituak eta haziak biltzeko behar diren bitartekoak identifikatzea.
10. Landareak eta zohiak ugaltze eta landatze aldera, lana antolatu bezala egitea.

11. Eskariak bidaltzeko eta garraiatzeko bete behar diren baldintzak eta dokumentazioa aztertzea, eta garraiatu beharrekoa ontziratzeke, etiketatzeke eta moldatzeko behar diren material eta produktuak identifikatzea.
12. Makinak eta tresnak kontrolatzeko elementuak ezagutzea, dagozkien funtzioekin lotzea eta erabiltzen jakitea.
13. Muntatzeko eta mantentze-lanetako teknikak aplikatzea, laboreen ur premiak kalkulatzeko eta ureztaketa sistemak erabiltzea.
14. Irizpide tekniko, praktiko eta estetikoak deskribatzea eta aplikatzea, aretoak eta erakusleihoak antolatzeko.
15. Muntaketa teknikak deskribatzea eta erabiltzea, eta materialak eta tresnak identifikatzea; hori, lore sortak eta dekorazio proiektuak egiteko.
16. Marketineko teknikak deskribatzea eta lorezaintzako eta loradendako produktuak eta zerbitzuak saltzeko zergatik erabiltzen diren azaltzea.
17. Produktu eta zerbitzuen ezaugarriak aztertzea, komunikazio teknika egokiak baliatuz, bezeroei aholku teknikoak emateko.
18. «Bizitza osoan ikasten joateko» dauden baliabideak eta komunikazio eta informazio teknologiak aztertzea eta erabiltzea; hori, gehiago ikasteko, jakintzak eguneratzeko, profesional eta pertsona gisa hobetzeko aukerak antzemateko eta lan egoera desberdinei egokitzeko.
19. Taldean lan egitea eta taldeak antolatzea baloratzea, errespetuz parte hartzea eta erabakiak hartzea, taldean edo banaka, erantzukizunez eta autonomiaz jarduteko.
20. Lanean sortzen diren arazo eta gertakizunak arduraz konpontze aldera, sormena baliatzea eta baloratzea.
21. Komunikazio teknikak aplikatzea eta edukiak helburuaren eta hartzaileen arabera moldatzea, prozesua eragingarria izan dadin bermatzeko.
22. Jarduera profesionalarekin zerikusia duten ingurumen eta lan arriskuak aztertzea eta kausekin lotzea, prebentzio neurrien oinarri gisa erabiltzeko eta dagozkien protokoloak aplikatzeko; hori, norbera, gainerako jendea, ingurua eta ingurumena ez kaltetze aldera.
23. Eskuragarritasuna unibertsala eta «diseinua denentzakoa» izan dadin behar diren teknikak aplikatzea eta aztertzea.
24. Ikaskuntza prozesuan eta ekoizpen sektorean lanaren kalitate prozedurak hobetzeko erabili behar diren teknikak aplikatzea eta aztertzea.
25. Ekimen, enpresa eta hastapen profesionalen kulturarekin zerikusia duten prozedurak baliatzea, enpresa txiki baten oinarritzko gestiorako edo lan bati ekiteko.

26. Gizarteko agente aktibo gisa dauzkagun eskubideak eta betebeharrak aintzatestea eta gizarte eta lan baldintzak arautzen dituen legeria kontuan hartzea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

Moduluak:

LANBIDE MODULUA	Orduak	Kurtsoa
Agronomiaren oinarriak	198	1º
Tailerra eta trakzio ekipoak	132	1º
Nekazaritzako azpiegiturak eta instalazioak	99	1º
Landare osasunaren printzipioak	99	1º
Kontrol fitosanitarioa	147	2º
Lorategiak eta berdeguneak jartzea	198	1º
Lorategiak eta berdeguneak zaintzea eta hobetzea	210	2º
Mintegian landareak eta zohiak ekoiztea	165	1º
Lore eta landare konposizioak	66	1º
Loradendak	42	2º
Lorzaintzan eta loradendetan saltzeko teknikak	63	2º
Ingeles teknikoa	33	1º
Lanerako prestakuntza eta orientazioa	105	2º
Enpresa eta ekimena	63	2º
Prestakuntza lantokian	380	2º

1. Agronomiaren oinarriak:

- Klima eta klimak laboreetan dauzkan eraginak bereiztea eta dagoen informazioa aztertzea.
- Lurzoru motak eta lurzoruaren ezaugarriak identifikatzea eta lortutako datuak analisiaren bidez interpretatzea.
- Lursailaren ezaugarri topografikoen oinarritzko adierazpena egitea eta erabilitako teknikak justifikatzea.
- Espezieen ur premia zehaztea, uraren, lurzoruaren eta landarearen arteko harremana aztertuz.
- Gertuko ekosistemen ezaugarriak ezagutzea, harreman biotikoak aztertuz.
- Landare espezieak identifikatzea, irizpide taxonomikoen arabera.
- Ongarriak bereiztea eta nola erabili behar diren jakitea.

2. Tailerra eta trakzio ekiptoak

- Ustiatetikoko tailerra antolatzea eta tresnen eta ekiptoen kokapena justifikatzea.
- Traktorea eta trakzio ekiptoak erabiltzea eta dauzkaten funtzionaltasunak eta erabilerak interpretatzea.
- Traktorea eta trakzio ekiptoak zaintzeko lanak egitea eta mantentze-lanen protokoloak eta fitxak interpretatzea.
- Oinarritzko soldadura eta mekanizazio lanak egitea eta erabilitako materialak eta metodoak justifikatzea.
- Laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko arauak betetzea, arriskuak identifikatzea eta arrisku horiek prebenitzeko tresnak eta neurriak jartzea.

3. Nekazaritzako azpiegiturak eta instalazioak

- Nekazaritza azpiegiturak instalatzea eta zaintzea, eta ezaugarriak eta muntatzeko teknikak deskribatzea.
- Ureztaketa instalazioak muntatzea eta instalazioaren elementuak eta muntatzeko teknikak identifikatzea.
- Babes eta behartze sistemak instalatzea eta sistema horiek ingurumeneko eta laboreko faktoreekin lotzea.

- Nekazaritza instalazioak zaintzea eta, horretarako, instalazioak txukun eta garbi edukitzeko protokoloak interpretatzea.
- Laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko arauak betetzea, arriskuak identifikatzea eta arrisku horiek prebenitzeko tresnak eta neurriak jartzea.

4. Landare osasunaren printzipioak

- Landaretza espontaneo baztergarria bereiztea eta eremuan dauden espezieak deskribatzea.
- Landareentzako mesedegarria eta kaltegarria den fauna zehaztea eta fauna horren ezaugarri biologikoek landareengan duten eragina aztertzea.
- Landareentzako agente mesedegarriak eta gaixotasun eta kalteak eragiten dituzten agenteak zehaztea eta agente horien ezaugarriak deskribatzea.
- Landareen osasun egoera zehaztea eta, horretarako, ezarritako protokoloari jarraiki jasotako informazioa balioztatzea.
- Landareak babesteko metodoak bereiztea eta metodo horiek landareen osasunean duten eragina balioztatzea.

5. Kontrol fitosanitarioa:

- Aplikatu behar diren produktu kimiko fitosanitarioak zehaztea, ezaugarri teknikoak aztertu ondoren.
- Produktu kimiko fitosanitarioak biltegitratzea eta manipulatzeko, eta, horretarako, arauak eta ezarritako protokoloak interpretatzea.
- Metodo fisiko, biologiko edota bioteknikoak aplikatzea eta agindutako teknikak deskribatzea eta baliatzea.
- Produktu kimiko fitosanitarioak prestatzea, ezarritako protokoloaren arabera.
- Produktu kimiko fitosanitarioak aplikatzea eta horretarako behar diren makinak eta ekipoak aukeratzea.
- Produktu kimiko fitosanitarioak erabiltzeak dauzkan arriskuak ezagutzea, osaeraren eta ekintza mekanismoen arabera, eta jendearengan eta ingurumenean dauzkaten eragin kaltegarriak aztertzea.
- Laneko arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko arauak betetzea, arriskuak identifikatzea eta arrisku horiek prebenitzeko tresnak eta neurriak jartzea.

5. Lorategiak eta berdeguneak jartzea

- Barruko eta kanpoko lorategien eta berdeguneen elementuak berriz planteatzea eta neurketa motak eta markatzeko teknikak deskribatzea. Lursaila eta edukiontziak prestatzea eta erabiltzen diren bitartekoak eta metodoak deskribatzea.
- Lorategietan eraikin txikiak eta instalazioak egitea eta instalazioko osagaiak eta elementuak bereiztea.
- Landare materiala ereitea eta ezartzea, eta erretzen eta errotzen dela bermatzen duten lanak deskribatzea.
- Zuhaitzak, zuhaixkak eta landareak landatzea eta lan horri dagozkion teknikak aztertzea.

6. Lorategiak eta berdeguneak zaintzea eta hobetzea

- Lorategiak eta berdeguneak zaintzea eta berritzea, eta zaintzeko metodo eta teknikak deskribatzea.
- Lorategiak eta berdeguneak ureztatzea eta ongarritzea, eta landareen premiak eta aplikazio teknikak aztertzea.
- Lorategi eta berdeguneetako elementu ez-begetalak zaintzea eta lan horri dagozkion tresnak eta teknikak deskribatzea.
- Goietako joan-etorriak egitea eta gora egiteko sistemak eta metodoak identifikatzea.
- Goietako lanak egitea eta baliatzen diren makinak, tresnak eta metodoak deskribatzea.

7. Mintegian landareak eta zohiak ekoiztea

- Landareak sexu bidezko ugalketa medio ugaltzea eta hazien ezaugarriak eta premiak aztertzea.
- Landareak sexugabeko ugalketaren bitartez ugaltzea eta ugaritzeko teknikak deskribatzea.
- Mintegian landareen hazkuntza ingurunea prestatzea eta ekoizteko bitartekoak eta materialak deskribatzea.
- Mintegian landarea landatzea, ingurumena kontrolatzea eta espezieen premiak deskribatzea.
- Zohiak ekoiztea eta landatzeko lanak deskribatzea.

- Hazi, landare eta zohien eskariak prestatzea, bidaltzeko eta garraiatzeko, eta metodo eta teknikak deskribatzea.

8. Lore eta landare konposizioak

- Lore eta landare konposizioen zirriborroak egitea, teknika artistikoen bitartez eta irizpide estetiko, ekonomiko eta funtzionalen arabera.
- Lore konposizioak egitea eta muntaketa faseak deskribatzea.
- Landare konposizioak egitea, teknika estetikoaren bitartez eta aurrez zehaztutako diseinuaren arabera.
- Ekitaldi eta ospakizun berezietarako konposizioak egitea eta teknika artistikoak deskribatzea.
- Espazio handiak landare eta loreekin apaintzea eta dekorazio proiektua gauzatzeko faseak deskribatzea.

9. Loradendak

- Loradendako espazioak eta elementuak banatzea, irizpide tekniko, praktiko eta estetikoaren arabera eta, betiere, erosotasuna kontuan hartuta.
- Loradendako lanen tailerretarako jarduerak antolatzea, lanak deskribatzea eta antolatzeko metodoak interpretatzea.
- Loradendako instalazio, ekipo, makina eta tresnen garbiketa antolatzea eta mantentze-lana egitea eta, horretarako, mantentze-lanetarako protokoloak eta eskuliburuak interpretatzea.
- Loradendako lehengai, material eta ohiko produktuen biltegitratzea eta zaintza kontrolatzea eta antolatzea, eta horretarako erabiltzen diren sistemak eta teknikak deskribatzea.
- Loradendako salmenta aretoan erakusleihoak eta erakusketak muntatzea, irizpide funtzional, estetiko eta komertzialen arabera.

10. Lorezaintzan eta loradendetan saltzeko teknikak

- Bezeroei arreta ematea, eta jarduera protokoloak eta eskainitako produktu eta zerbitzuak deskribatzea.
- Aurrekontuak egitea, aztertu ondoren zein den produktu eta zerbitzuen kostua eta zer tresna erabili behar diren.

- Salmenta prozesua osatzea eta, horretarako, produktuak kobratzeko eta aurkezteko prozedura deskribatzea.
- Produktu eta zerbitzuen banaketa antolatzea eta jarraitu beharreko prozedurak deskribatzea.
- Salmenta ondoko zerbitzuan bezeroen erreklamazio, kexa edo iradokizunei erantzutea, jarduera irizpide eta prozeduren arabera.

11. Ingeles teknikoa

- Tituluari dagokion lanbidearen eta eskaintzen den produktu edo zerbitzuaren arloko ahozko informazioa interpretatzea eta erabiltzea; produktu eta zerbitzu horien ezaugarriak eta propietateak eta enpresa motak eta enpresa horien kokapena identifikatzea eta deskribatzea.
- Sektoreko idazkiak eta nazioarteko merkataritza transakzioetarako dokumentuak interpretatzea eta betetzea: ezaugarrien eta funtzionamenduaren eskuliburua, eskari orria, harrera edo entrega orria, fakturak eta erreklamazioak, besteak beste.
- Komunikazio egoeretan jarrera eta jokabide profesionalak identifikatzea eta aplikatzea, eta beste herrialdeetako protokolo arauak eta ohiturak errespetatzea.

12. Lanerako prestakuntza eta orientazioa

- Enplegu abaguneak aukeratzea eta lanean hasteko eta ikasten jarraitzeko aukerak identifikatzea.
- Taldean lan egiteko estrategiak aplikatzea eta estrategia horiek helburuak lortzeko eraginkorrak diren ala ez balioztatzea.
- Lan harremanetako eskubideak baliatzea eta eginbeharrak betetzea, eta eskubide eta eginbehar horiek lan kontratuetan aintzatestea.
- Gizarte Segurantzako sistemak estaltzen dituen gertakarien aurrean zer babes eskaintzen duen zehaztea eta prestazio motak identifikatzea.
- Jardueraren arriskuak ebaluatzea, lan baldintzak eta lantokiko arrisku faktoreak aztertuz.
- Enpresa txiki batean arriskuak prebenitzeko plana egiten parte hartzea eta inplikaturako agente guztien erantzukizuna identifikatzea.
- Prebentzio eta babes neurriak aplikatzea eta tituluari dagokion lanbidearen arrisku egoerak aztertzea.

13. Enpresa eta ekimena

- Ekiteko ahalmena aintzatestea eta balioestea, eta lanpostu eta enpresa jardueretako betekizunak aztertzea.
- Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehaztea, enpresa ideia aukeratzea eta bideragarritasuna aztertzea, merkatu azterlan bat eginez; gainera, jarduera eremuan enpresa horrek izango duen eragina balioestea eta balio etikoak aplikatzea.
- Enpresa plana egiteko eta abian jartzeko eta enpresa eratzeko lanak egitea, izaera juridikoa aukeratzea eta lege betekizunak identifikatzea.
- ETE baten administrazio eta finantza gestiorako lanak egitea eta, horretarako, kontularitza eta zerga betekizun nagusiak identifikatzea eta dokumentazioa betetzea.

14. Prestakuntza lantokian

- Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzea eta egitura eta antolamendu horiek enpresak eskaintzen dituen produktuen ekoizpenarekin eta merkaturatzearekin lotzea.
- Lanbidean ohitura etikoak eta lanerako ohiturak aplikatzea, lanpostuaren ezaugarrien eta enpresak ezarritako prozeduren arabera.
- Lorategiak eta berdeguneak jartzeko lanak egitea, lursaila prestatzea eta enpresako ekipoak eta makinak erabiltzea, ezarritako jarraibideen arabera.
- Mintegian landareak eta zohiak ekoizteko lanak egitea, erabiltzen diren teknikak identifikatzea eta dauden bitarteko eta instalazioak baliatzea.
- Kontrol fitosanitarioko teknikak aplikatzea, eta metodoak eta ekipoak ezarritako protokoloen arabera erabiltzea.
- Lore eta landare konposizioak egitea eta teknika artistikoen eta muntaketa faseen ezaugarriak bereiztea.
- Loradendako lanak egitea, enpresak proposatutako jardueren arabera.
- Behartze sistemak, azpiegiturak eta instalazioak muntatzea eta zaintzea eta, horretarako, jarraibideak eta dokumentazio teknikoa interpretatzea.
- Produktu eta zerbitzuak saltzea eta bezeroei arreta ematea, enpresak emandako jarraibideen arabera.

Lanpostuak

- Baratze, mintegi eta lorategietako langilea.
- Lorezaina, oro har.
- Kirol zelaiak zaintzen dituen lorezaina.
- Hiri parke, lorategi historiko eta lorategi botanikoetako langilea.
- Lorategiak eta berdeguneak jartzeko gaitutako langilea.
- Lorategiak eta berdeguneak zaintzeko gaitutako langilea.
- Langile autonomoa, lorezaintza enpresetan.
- Mintegizaina.
- Mintegiko langilea, oro har.
- Mintegietan landareak ugaltzeko gaitutako langilea.
- Mintegietan landareak landatzeko gaitutako langilea.
- Goietan haziak eta fruituak biltzen dituen langile espezialista.
- Haziak ekoizteko gaitutako langilea.
- Txertatzailea.
- Mintegietan aritzeko gaitutako langilea.
- Lore-saltzailea, besteren kontura edo norberaren kontura.
- Loradendako ofiziala.
- Loradendako saltzailea.
-